

INFORMAZIO OHARRA

Aurkeztutako parte hartzeko eskaera: datuak eta merezimenduak egiaztatzea

Parte hartzeko eskaera aurkeztu ondoren, hura aurkeztu izanaren agiria jasoko da eskaeran adierazitako helbide elektronikoan. Hala ere, aurkeztutako eskaera bera, alegatutako eta autobarematutako datu eta merezimenduekin, ez da jasoko posta elektronikoz.


Horregatik, parte hartzeko eskaera aurkeztu ondoren, bertan jasotako datuak eta merezimenduak egiaztatu nahi badira, aurkeztutako eskaera KABIA foru organismo autonomoaren erregistro elektronikoaren bidez eskuratu behar da, beherago adierazten den moduan.

Ohartarazi behar da aurkeztutako azken eskaera soilik hartuko dela kontuan, eta eskaera egiteko formularioan gordetako datuak eta merezimenduak kontsultatzeak ez duela bermatzen datu eta merezimendu horiek aurkeztutako datuak eta merezimenduak izatea.

Bestalde, nahiz eta eskaera aurkeztu izanaren egiaztagirian izen-abizenen hurrenkera ez izan eskaeran adierazitakoa, izangaiak eskaeran adierazitako hurrenkera hartuko da kontuan.

Aurkeztutako eskaeran sartzeko modua:

1.- KABIA foru organismo autonomoaren erregistro elektronikoan sartu:
<https://egoitza.gipuzkoa.eus/WAS/CORP/WATTramiteakWEB/inicio.do?app=REGKB&idioma=E>



2.- Identifikatu.

3.- Hautatu "Kontsultak" atalean ondorengo aukera: "Erabiltzaile bezala erregistratutako dokumentazioa".

4.- Erregistratutako dokumentuen zerrenda bistaritzen da, pantailaren goiko aldean adierazitako urtekoa.



EMAITZA						
Erregistro data	↓	Zbki elektronikoa	Zbki. departamentala	Gaia	Saila	Ekintzak

5.- Hautatu erregistroa zerrendan, eta xehetasuna irekiko da. Xehetasunean eskuragarri dauden datuen artean, eskaerarako sarbidea dago. Horren bidez, aurkeztutako dokumentua deskarga daiteke:

Atxikitutako fitxategiak

Eskaera-Solicitud.pdf

Donostia, 2023ko martxoaren 27a

Egonkortze prozesuko arreta zerbitzua